



SARRERA:

Kaixo Oier Castrillo, Asier Santamaria, Ander Urueña eta Mikel Gamiz gara eta gure proiektua aurkeztuko dizuegu. Pentsatu dugu aniztasun funtzionaleko pertsonen futbol talde bat egitea futbola asko gustatzen zaigulako eta zailtasunak dituzten pertsonak eskubide berdina dute futboleko aritzeko, horregatik pentsatu dugu talde hau sortzea, Leioa eta inguruko herrietako aniztasun funtzionala pairatzen duten pertsonak talde honetan jolasteko.

Aniztasun funtzionaleko pertsonak esaten dugunean bizitza normala egiteko zailtasunak dituzten pertsonak buruz ari gara, gorputzean pairatzen dituen mugak direla eta. Gure taldean arazo mentalak dituzten pertsonak izango dira gure futbol taldearen jokalaria, adibidez, down sindromea pairatzen duten gizon-emakumeak.

Jendearen iritzia jakiteko galdetegi bat sortu dugu eta erantzunen arabera jendea prest egongo litzateke gure partiduak ikustera etortzeko. Gainera, gure ideia onuragarria dela gizarterako esan dute inklusioa lantzen dugulako aniztasun funtzionaleko pertsonen futbola sustatuko dugulako.

Instalazioak Leioako polikiroldegi berrian kokatuko dira eta berria denez egoera ezin hobekoan egongo dira gure jokalariai eroso egoteko eta ikusleak baita ere. Azken hauek (ikusleak) taberna izango dute eskuragarri futbol zelaietan bertan. Futbol taldearen entrenatzaileak gu geu izango gara.



